Azpeitiko Udala

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK 4
1.- Kontratuaren ezaugarriak 4
2.- Kontratuaren bidez bete beharreko administrazio-beharrak 4
3.- Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua: 4
4.- Kontratuaren balio zenbatetsia 4
5.- Kontratuaren prezioa 4
6.- Kreditua egotea 5
7.- Zerbitzuak emateko epea eta lekua 5
8.- Prezioak berrikustea 5
9.- Kontratuaren publizitatea 5
10.- Gai hauei buruzko informazioa: zergak, ingurumena, emakumeen eta gizonen berdintasuna, hizkuntza-berdintasuna, enpleguaren babesa, lan-baldintzak eta lan-arriskuen prebentzioa, eta datuen babesa. 5
11.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren prerrogatibak 6
12.- Errekurtsoen araubidea 6
II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA 7
13.- Espediente-mota eta lizitazio-modua 7
14.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak 7
15.- Behin-behineko bermea 8
16.- Proposamenak aurkeztea 8
17.- Lizitatzaileentzako informazioa 8
18.- Proposamenen edukia 9
19.- LEHENENGO artxibo elektronikoa: "AURRETIKO BALDINTZAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK" 9
20.- BIGARREN artxibo elektronikoa: "BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" 10
21.- HIRUGARREN artxibo elektronikoa: "NEGOZIAZIO-ALDERDIAK: ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA" 11
22.- Aldaerak onartzea 11
23.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak 11
24.- Kontratazio-mahaia 12
25.- Proposamenak irekitzea eta aztertzea 12
25.1.- BAT zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta administrazio-dokumentazioa kalifikatzea 12
25.2.- BI zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea (BI zenbakiko artxibo elektronikoa dagoenean bakarrik) 13

25.3.- HIRU zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea 13
25.4.- Kontratazio-mahaiaren aktak 13
26.- Kontratazio-mahaiaren egintzen emaitzak argitaratzea eta eragindako lizitatzaileei jakinaraztea 13
27.- Esleitzeko irizpideak 14
28.- Eskaintzak baloratzea 14
29.- Eskaintzak argitzea 14
30.- Balio anormalki baxuegiak dituzten eskaintzak 15
31.- Prozedurako ondorengotza 15
32.- Administrazioak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartzea eta esleipen-prozeduran atzera egitea. 15
33.- Esleipena 15
33.1.- Eskaintzen sailkapena eta adjudikazio-proposamena 15
33.2.- Kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiko baldintzak betetzen dituela justifikatzeko dokumentazioa aurkeztea 15
33.3.- Behin betiko bermea 18
33.4.- Esleipena 19
34.- Kontratua formalizatzea 19
III. KAPITULUA - KONTRATUA GAUZATZEA 20
35.- Kontratuaren arduraduna 20
36.- Kontratistaren ondorengotza 21
37.- Kontratua lagatzea 21
38.- Enpresa kontratistaren baldintzak eta betebeharrak 21
38.1.- Baldintza orokorrak 21
38.2.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak 22
38.2.1.- Laneko, gizarteko eta ingurumena babesteko betebeharrak 22
38.2.2.- Kontratua gauzatzeko behar diren langileei buruzko betebeharrak 23
38.2.3.- Subrogazio-kasuetako betebeharrak 24
38.2.4.- Gauzatzeko hizkuntza-betebeharrak 24
38.2.5.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko betebeharrak 25
38.2.6.- Azpikontratazio-kasuetako betebeharrak 25
38.2.7.- Laneko segurtasun eta osasunaren arloko betebeharrak 26
38.2.8.- Enpresa kontratistako langileei buruzko betebeharrak 28
38.2.9.- Informazioaren segurtasunaren arloko betebeharrak 29
38.3.- Kontratazio publikoari aplikatzekoa den jokabide-kodea eta integritate instituzionalaren esparrua betetzeari buruzko betebeharrak 30
38.4.- Baimenak eta lizentziak kudeatzeari buruzko betebeharrak 30
38.5.- Kontratistari eska dakizkiokeen gastuak 30

38.6.- Lan-programa 30
39.- Obra-proiektuak egiteko kontratuari buruzko espezialitateak 31
39.1.- Akatsak zuzentzea 31
39.2.- Obrak gauzatzean izandako desbideratzeengatiko kalte-ordainak eta proiektuko akats edo akatsengatiko erantzukizuna 31
40.- Herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten zerbitzuak emateko kontratuei dagozkien espezialitateak 31
41.- Jabetza intelektualaren eskubideak 32
42.- Berandutzeagatiko zigorrak eta beste zigor batzuk 32
43.- Kontratua aldatzea 33
43.1.- Aurreikusitako aldaketak 34
43.2.- Aurreikusi gabeko aldaketak 34
43.3.- Aldatzeko araubidea 34
44.- Kontratistari ordaintzea 34
45.- Kontratua etetea 35
46.- Harrera eta berme-epea 35
46.1.- Jasotzea eta likidatzea 35
46.2.- Berme-epea 35
46.3.- Bermea itzultzea 36
47.- Kontratua suntsiaraztea 36
I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK 38
II. ERANSKINA.- ABAL-EREDUA 41
III. ERANSKINA.- NEGOZIAZIO-ATALA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA DUEN ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA 43

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

1.- Kontratuaren ezaugarriak

1.- Kontratuaren objektua da baldintza-agiri honen ezaugarrien koadroaren 3. apartatuan deskribatutako zerbitzuak ematea, kontuan hartuta, hala badagokio, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean (SPKL) aurreikusitako kasuen arabera izapidetu daitezkeen aldaketak. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

Apartatu horretan hala ezartzen denean, loteka lizitatuko da, apartatu horretan deskribatzen diren baldintzei eta mugei jarraituz, SPKLren 99. artikuluaren arabera. Plegu honetan kontratuari edo enpresa adjudikaziodunari egiten zaizkion erreferentzia guztiak kontratuaren objektua banatzen den lote bakoitzari egiten zaizkiola ulertuko da.

2.- Kontratuen Hiztegi Komunaren (CPV) nomenklaturari dagokion kodifikazioa ezaugarrien taulako 3. atalean agertzen da.

2.- Kontratuaren bidez bete beharreko administrazio-beharrak

Kontratu honen bidez, preskripzio teknikoen agirian deskribatutako premiak beteko dira, bertan deskribatutako zerbitzuak emanez.

3.- Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua:

Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa, SPKLren 100.2 artikuluaren arabera kalkulatua, gehienez ere ezaugarrien taulako 4. apartatuan adierazitakoa da, balio erantsiaren gaineko zerga barne.

4.- Kontratuaren balio zenbatetsia

1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, SPKLren 101. artikuluaren arabera kalkulatua eta ezaugarrien taulako 5. apartatuan jasoa, kontuan hartu da, bai kontratu honi aplikatu beharreko adjudikazio-prozedura eta haren mende egongo den publizitatea hautatzeko, bai pertsona fisiko eta juridiko lizitatzaileen (aurrerantzean, lizitatzaileak) gaitasun-baldintzak eta aplikatu beharreko baliabideen araubidea ezartzeko. Balio zenbatetsi horrek barne hartuko ditu, hala aurreikusten bada, ezaugarrien taulako 21. apartatuan adierazitako goranzko kontratu-aldaketa posibleak.

2.- SPKLren 101.5 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ezaugarrien taulako 5. apartatuan kontratuaren balio zenbatetsia zehazteko erabilitako metodoa adierazten da.

5.- Kontratuaren prezioa

1.- Kontratuaren prezioa adjudikaziotik ateratzen dena izango da, eta BEZa partida independente gisa adieraziko da. Kontratuaren prezioan sartuta egongo dira aplikatzekoak diren tributuak, tasak eta kanonak, bai eta baldintza-agiri honetan jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz adjudikaziodunari sortzen zaizkion gastu guztiak ere.

2.- SPKLren 102.4 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ezaugarrien taulako 4. apartatuan prezioa zehazteko erabilitako sistema adierazten da.

3.- Oroharreko prezioa duten kontratuetan, enpresa adjudikaziodunak eskainitakoa izango da kontratuaren prezioa, eta ezingo du inola ere gainditu lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

4.- Prestazioaren osagaiei edo unitateei dagozkien unitate-prezioen bidez erabakitzen den kontratuetan:

a) Objektua osatzen duten unitateen kopurua zehatz definitzen denean: adjudikaziodunak eskainitako unitate-prezioa unitate-kopuruaz biderkatzearen emaitza izango da prezioa.

b) Objektua osatzen duten unitateen kopurua zehatz-mehatz definitzen ez denean:

) Unitate bakoitzaren prezioa esleipendunak eskainitakoa izango da.

) Kontratuaren gehieneko aurrekontu mugatzailea ezarriko da, baina aurrekontu horren benetako gastua Administrazioaren benetako beharrek baldintzatzen dute, eta Administrazioak ez du unitate kopuru jakin bat eskatu beharrik, ez eta osorik gastatu beharrik ere.

5.- Ezaugarrien koadroko 4. apartatuan hala adierazten bada, eskaintza ekonomikoak onartuko dira, unitateko prezio partzialak dituztenak, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuan agertzen direnekiko gehikuntza-ehuneko batekin, baina ateratzen den gehieneko prezioak inola ere ezingo du gainditu lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa.

6.- Kreditua egotea

1.- Kreditu egokia eta nahikoa dago egin beharreko kontratuaren gastuari aurre egiteko. Kontratua aurrekontu-partidaren/partiden kargura finantzatuko da/dira, ezaugarrien taulako 7. apartatuan ezarritako urterokoen arabera.

2.- SPKLren 117.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta ezaugarrien koadroan aurreikusitakoaren arabera, espedientea aldez aurretik izapidetzen bada, kontratuaren esleipena dagokion ekitaldian kontratutik eratorritako betebeharrak bermatzeko kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintza etengarriaren mende geratuko da.

7.- Zerbitzuak emateko epea eta lekua

1.- Kontratua gauzatzeko epea ezaugarrien taulako 8. apartatuan adierazitakoa izango da, edo enpresa esleipendunak eskaintzen duena, baldin eta lizitatzaileek epe osoa eta/edo epe partzialak murriztea proposatu badezakete.

2.- Kontratua luzatu ahal izango da, ezaugarrien taulako 9. apartatuan hala aurreikusten bada; luzapena nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, SPKLren 29. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

3.- Zerbitzuak leku jakin batean eman behar badira, 1 2 d atalean ezaugarrien taula adieraziko da.

8.- Prezioak berrikustea

1.- Berrikuspena egin behar bada, ezaugarrien taulako 1.4 atalean adieraziko da, eta bertan jasoko da aplikatu beharreko formula.

2.- SPKLn ezarritako baldintzetan berrikusiko dira prezioak (103. artikulua eta hurrengoak).

9.- Kontratuaren publizitatea

1.- Kontratua esleitzeko lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

2.- Kontratatzailearen profilean, kontratuaren lizitazio-deialdiari buruzko informazioa emango da, administrazio-klausula partikularren agiria eta dokumentazio osagarria barne, hala badagokio.

3.- Kontratu honi buruzko informazioa, SPKLren 63. artikuluan ezarritakoaren arabera kontratatzailearen profilean argitaratuko dena, ezaugarrien taulako 2. apartatuan adierazitako helbide elektronikoan kontsultatu ahal izango da.

4.- Kontratuak erregulazio harmonizatukoak direnean, lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da, SPKLren 135. artikuluarekin bat etorriz.

10.- Gai hauei buruzko informazioa: zergak, ingurumena, emakumeen eta gizonen berdintasuna, hizkuntza-berdintasuna, enpleguaren babesa, lan-baldintzak eta lan-arriskuen prebentzioa, eta datuen babesa.

Erakunde hauetan, gai hauei buruz indarrean dauden betebehar eta xedapenei buruzko informazioa lor daiteke:

- Fiskalitatea: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saila eta gainerako zerga-administrazioak.

- Desgaitasuna duten pertsonen enplegua, lan-baldintzak eta lan-arriskuen prebentzioa babestea: Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza.
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea erakunde autonomoa.
- Hizkuntza-berdintasuna: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.
- Ingurumenaren babesa: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia. IHOBE, S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa
- Datu pertsonalen babesa: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.

11.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren prerrogatibak

1.- Kontratu honek administrazio-izaera du, SPKLren 25. artikuluan xedatutakoaren arabera. Alderdiek baldintza-agiri honetan eta dagokion proiektuan ezarritakoa bete beharko dute.

2.- Baldintza-agirietan aurreikusi gabekoari dagokionez, honako hauek arautuko dute kontratua: SPKLk, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuak (817/2009 ED) eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrak (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartua), aurrekoaren aurka ez doan guztian. Gainera, kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapenek arautuko du, bai Euskal Autonomia Erkidegoan (3/2016 Legea, apirilaren 7koa, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoa), bai Gipuzkoako Foru Aldundian.

3.- Nolanahi ere, arestian aipatutako lege- eta erregelamendu-arauak aplikatuko dira SPKLren aurka ez doan guztian.

4.- Ordezko moduan, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

5.- Baldintza-agiri hau eta gainerako kontratu-dokumentuak bat ez badatoz, baldintza-agiri honek izango du lehentasuna.

6.- Kontratuaren klausulak (edozein dela ere haien nondik norakoa), haren parte diren beste kontratu-dokumentu batzuk eta hitzartutako gauza exekutatzeko aplikatu behar diren jarraibideak edo araudia ez ezagutzeak ez du esleipenduna horiek betetzeko betebeharretik salbuesten.

7.- Kontratazio-organoak, SPKLren 190. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, administrazio-kontratua interpretatzeko eta kontratua betetzeak sortzen dituen zalantzak ebazteko prerrogatiba du. Era berean, alde bakarretik aldatu ahal izango du kontratua, eta suntsiaraztea erabaki, SPKLn eta hura garatzeko xedapenetan adierazitako mugen eta betekizunen eta ondorioen barruan.

8.- Azpeitiko Udaleko organo eskudunek ebatziko dituzte kontratua aplikatu edo interpretatzean, betearaztean, aldatzean, betetzean edo suntsiaraztean sor daitezkeen auziak, kontratistari entzunaldia eman ondoren, SPKLren 191. artikuluan eta APKLEOren 97. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera. Erabakiak berehala betetzekoak izango dira.

9.- Interesdun baten eskariz hasitako prozeduretan, berariaz besterik ezartzen ez bada, eta xedetzat zenbatekoak erreklamatzea, administrazio-prerrogatibak baliatzea edo administrazio-kontratu bat betearazteari, burutzeari edo azkentzeari buruzko beste edozein gai badute, ebazteko aurreikusitako epea ebazpena jakinarazi gabe igaro ondoren, interesdunak ezetsitzat jo ahal izango du bere eskaera administrazio-isiltasunez, hargatik eragotzi gabe ebazteko betebeharrak irautea.

12.- Errekurtsoen araubidea

1.- Baldintza-agiri honen eta preskripzio teknikoen agiriaren aurka, nahi izanez gero, errekurtsoa aurkeztu ahal izango da SPKLren 44. artikuluan aurreikusitako errekurtso bereziaren bidez, baldin eta kontratuaren balio zenbatetsia 100.000 eurotik gorakoa bada.

2.- Jarduera hauen aurka ere errekurtsoa jarri ahal izango da:

a) Lizitazio-iragarkiak eta kontratazioa arautu behar duten baldintzak ezartzen dituzten gainerako kontratu-dokumentuak.

b) Esleipen-prozeduran onartutako izapide-egintzak, baldin eta izapide horiek, zuzenean edo zeharka, esleipenari buruz erabakitzen badute, prozedura jarraitzea eragozten badute edo defentsa-gabezia edo eskubide edo bidezko interesetan kalte konponezina sortzen badute. Nolanahi ere, ulertuko da aurreko inguruabarrak betetzen direla kontratazio-mahaiaren edo -organoaren egintzetan, zeinaren bidez erabakitzen baita hautagaiak edo lizitatzaileak onartzea edo ez onartzea, edo eskaintzak onartzea edo baztertzea, barnean direla SPKLren 149. artikulua aplikatzearen ondorioz nabarmenki baxuegiak izateagatik kanpoan uzten diren eskaintzak.

c) Esleipen-erabakiak.

d) SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzean oinarritutako aldaketak, aldaketa horrek beste adjudikazio bat behar zuela iritzita.

SPKLren 51. artikuluan xedatutakoaren arabera, errekurtsoa kontratazio-organoaren erregistroan, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboaren erregistroan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako lekuetan aurkeztu beharko da, 15 egun balioduneko epean, SPKLren 50. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, errekurtsoa SPKLren 39. artikuluaren 2. apartatuko c), d), e) edo f) letretan aurreikusitako deuseztasun-kausaren batean oinarritzen denean, SPKLren 50.2 artikuluan aurreikusitako errekurtso-epeak hartuko dira kontuan.

Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera.

3.- Gainerako kontratuetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean edo sektore publikoaren araubide juridikoaren indarreko araudian eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako errekurtso arruntak aurkeztu ahal izango dira.

II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA

13.- Espediente-mota eta lizitazio-modua

1.- Kontratazio-espedientea ezaugarrien taularen hasieran aurreikusitako prozeduraren eta izapidetzearen arabera egiten da.

Aldaerak onartzen badira, lizitatzaileek alternatibak eskaini ahal izango dituzte, ezaugarrien taulako 1.3 apartatuan ezarritako moduan eta preskripzio tekniko zehatzen agirian ezarritako baldintza, modalitate eta ezaugarri teknikoekin (apartatu horretan laburtuta daude).

2.- Ezaugarrien taularen goiburuan espedientearen presako izapidetzea zehazten bada, murriztu egingo dira lizitazioa, esleipena eta formalizazioa egiteko ezarritako epeak, SPKLren 119. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritako arauen arabera.

14.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak

1.- Administrazioarekin kontratuak egin ahal izango dituzte jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridikoek, espainiarrek zein atzerritarrek, kontratatzeko debekurik ez badute eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute.

Aplikatzekoa den araudiak hala zehazten duelako lizitatzaileari baldintza jakin batzuk eskatzen bazaizkio adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izateko (antolakuntzari, onuren xedeari, finantzaketa-sistemari edo bestelakoei buruzkoak), egiaztatu egin beharko ditu prozeduran parte hartzen duenean.

2.- Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ezari buruzko inguruabarrak, aurreko paragrafoan aipatutakoak, eskaintzak aurkezteko azken egunean bete beharko dira, eta kontratua burutzen den unean iraun beharko dute.

3.- Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak emateko eskatzen den enpresa-edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute.

4.- Pertsona juridikoei beren estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezko dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan sartzen diren prestazioetarako kontratuak bakarrik esleitu ahal izango zaizkie.

5.- Administrazioak, halaber, aldi baterako eratutako enpresa-elkarteekin kontratuak egin ahal izango ditu, eta ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua bere alde esleitu arte.

Osaera aldatzen bada, edo kontratua formalizatu aurretik eta ondoren gertatzen diren aldaketa-kasuetan, SPKLren 69. artikuluko 8. apartatuan eta hurrengoetan xedatutakoa beteko da. Horretarako, gertatu den gorabehera jakinarazi beharko zaio kontratazio-organoari.

6.- Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresei eta Europar Batasunetik kanpoko enpresei dagokienez, SPKLren 67. eta 68. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

15.- Behin-behineko bermea

1.- SPKLren 106. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, salbuespen gisa, interes publikoko arrazoiengatik eta espedientean justifikatuta, kontratu honetarako behin-behineko berme bat eratzea eskatzen bada, zenbatekoa ezaugarrien taulako 1.8 apartatuan adierazitakoa izango da.

2.- Bermeen formari eta betekizunei dagokienez, SPKLren 106.3 eta 108.1 artikuluetan aurreikusitakoari jarraituko zaio, baita HAKLEOren 55., 56., 57. eta 58. artikuluetan xedatutakoari ere.

3.- Behin-behineko bermea automatikoki azkenduko da, eta kontratua burutu eta berehala itzuliko zaie lizitatzaileei.

16.- Proposamenak aurkeztea

1.- Proposamenak www.contratacion.euskadi.eus lizitazio elektronikoko plataformaren bidez aurkeztuko dira, ezaugarrien taulako 30. apartatuan adierazitako epean, lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO) erregulazio harmonizatuko kontratuetarako.

2.- Dokumentazioaren bidalketa, bai eta jakinarazpenak eta komunikazioak ere, baldintza-agiri honen I. eranskinean jasotakoaren arabera egingo dira.

3.- Dokumentuak izendatzeko, baldintza-agiri honen 19., 20., 21. eta 22. klausuletan adierazitako apartatuak hartuko dira kontuan, BAT, BI eta HIRU artxibo elektronikoetan sartu beharreko dokumentu-eduki gisa.

4.- Proposamenak isilpekoak izango dira, eta, horretarako, lizitazio publikoa egin arte isilpekoak direla bermatzen duten bitartekoak jarriko dira.

17.- Lizitatzaileentzako *informazioa*

1.- SPKLren 138.3 artikuluan aipatzen den informazio gehigarria edo osagarria eman behar denean, administrazio kontratatzaileak informazio hori eman beharko du, gehienez ere eskaintzak aurkezteko ezarritako muga-eguna baino 6 egun natural lehenago, betiere eskaera data hori baino gutxienez 12 egun natural lehenago aurkezten bada. Eskaera hori lizitazio-iragarkian eta ezaugarrien taulako 1. apartatuan adierazitako helbide elektronikoan egingo da.

2.- Presakotzat jotako espedienteetan, epea 4 egun naturalekoa izango da, beranduenez, erregulazio harmonizatuko kontratuetarako eskaintzak aurkezteko ezarritako epea amaitu aurretik.

3.- Argibideak kontratatzailearen profilean argitaratzen badira, erantzunak lotesleak izango dira.

18.- Proposamenen edukia

1.- Lizitatzaileak edo haren ordezkariak hurrengo klausuletan adierazten diren artxibo elektronikoetan aurkeztuko ditu proposamenak.

2.- Artxibo elektroniko bakoitzaren barruan, fitxategi independente batean jasoko da artxiboaren edukia, zenbakiz adierazita (APKLEOren 80.1 artikulua).

19.- LEHENENGO *artxibo elektronikoa: "AURRETIKO BALDINTZAK BETE IZANAREN EGIAZTAGIRIAK"*

1.- "AURRETIKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEN DUEN DOKUMENTAZIOA" izeneko artxibo elektroniko horretan, jarraian zerrendatzen diren dokumentuak sartu beharko dira, bai eta dokumentu horiek guztiak zerrendatzen dituen aurkibide bat ere.

a) **Jakinarazpenak** eta komunikazioak jasotzeko datuak, I. eranskinaren gehigarriaren ereduaren arabera.

b) **Europako** Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB). SPKLren 140. eta 141. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, II. eranskinean jasotako jarraibideen arabera bete beharrekoa, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta, bertan adierazten den inprimaki-ereduaren arabera.

Enpresa lizitatzaileak beste entitate batzuen kaudimena eta baliabideak erabiltzen baditu, horietako bakoitzeko EKAB bat aurkeztu beharko du.

Ezaugarrien koadroan kontratuaren xedea sortatan banatzea aurreikusten denean, eskatzen diren kaudimen ekonomiko eta finantzarioko edo tekniko eta profesionaleko baldintzak sorta batetik bestera aldatzen badira, kaudimen-betekizun berberak aplikatzen zaizkion sorta edo sorta-multzo bakoitzeko EKAB bat aurkeztuko da.

c) **Aldi** baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio. Bi enpresa edo gehiago aldi baterako elkarte gisa aurkezten badira lizitazio batera, dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko dute, honako hauek adierazita: sinatzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak, enpresa bakoitzaren parte-hartzea, eta adjudikaziodun izanez gero aldi baterako elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela (SPKLren 69 eta APKLEOren 24). Elkarteko enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute agiri hori. Kasu horietan, enpresa bakoitzak bere EKAB aurkeztu beharko du. Baldintza-agiri honen III. eranskinean, aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromiso-eredua jasotzen da.

d) **Kontratua** gauzatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak adskribatzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, ezaugarrien taulako 1 6 atalean adierazten diren profilekin eta zehaztapenekin. Plegu honen IV. eranskinean dago eredua.

e) **Enpresa** lizitatzailearen berariazko erantzukizunpeko adierazpena, kide den enpresa-taldeari buruzkoa eta talde bereko sozietate guztiak hartzen dituena, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako baldintzetan. Enpresa-talde bateko kide ez bada, horren adierazpena egingo da. Plegu honen V. eranskinean dago eredua.

f) **Azpeitiko** Udalaren kontratazio publikoari aplika dakiokeen jokabide-kodea eta integritate instituzionaleko esparrua betetzeari buruzko adierazpena. Adierazpen hori baldintza-agiri honen VI. eranskinean jasotako ereduaren araberakoa izango da.

g) **Lizitatzaileen** dokumentuak eta datuak konfidentzialak direla adieraztea. Enpresa lizitatzaileek adierazi beharko dute, hala badagokio, beren ustez zer dokumentu administratibo eta tekniko eta datu diren konfidentzialtzat hartzeko modukoak. Egoera hori (gaininprimatuta, marjinan edo beste edozein modutan) hala adierazitako dokumentuan bertan jaso beharko da. Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat jo daitezke, baldin eta dokumentu eta datu horiek hirugarren pertsonei edo erakundeei zabaltzea haien interes komertzial legitimoen aurkakoa izan badaiteke edo enpresen arteko lehia leialari kalte egin badiezaioke. Adierazpen hori betetzen ez bada, ulertuko da dokumentu edo datu batek ere ez duela izaera hori. Plegu honen VII. eranskinean dago eredua.

h) **Behin-behineko** bermearen egiaztagiria, hala badagokio. Behin-behineko bermea eskatzen bada, honela gordailutuko da:

Banku-kontuaren nazioarteko kodea duen kontuan

2095 5029 11 1060024535 KUTXABANK, bermeak eskudirutan direnean; orduan, gordailu hori egiaztatzen duen frogagiria sartu beharko da.

Idatzoharrean jasotako baloreak ibilgetzeko ziurtagiriak, abalak edo kauzio-aseguruen ziurtagiriak direnean, kontratazio-organoaren aurrean (ikus abal-eredua VIII. eranskinean).

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, enpresa parte-hartzaile batek edo batzuek eratu ahal izango dituzte behin-behineko bermeak, baldin eta, oro har, ezaugarrien taulako 1.8 apartatuan eskatzen den zenbatekora iristen badira eta aldi baterako enpresa-elkarteko kide guztiak solidarioki bermatzen badituzte.

i) **Atzerriko** lizitatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioaren berezitasunak. Atzerriko lizitatzaile guztiek, aurreko b) letran aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenaz gain, deklarazio bat aurkeztu beharko dute, kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta, hala badagokio, lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egiten diotela adieraziz (SPKLren 140.1 f) artikulua).

Europar Batasuneko kide ez diren edo Europako Esparru Bakarrari buruzko Akordioa sinatu ez duten estatuetako enpresek, gainera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- **Enpresak** egoitza duen lekuan Espainiak duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrak edo Bulego Kontsularrak emandako txostena. Bertan, enpresak aldez aurretik egiaztatuta, honako hau adieraziko da: tokiko lanbide- edo merkataritza-erregistroan edo antzekoan inskribatuta dagoela, edo, halakorik ezean, kontratuaren xedearen eremuko jardueretan aritzen dela.
- **Elkarrekikotasun-txostena,** SPKLren 68. artikuluan aipatzen dena, salbu eta erregulazio harmonizatuko kontratuak badira; kasu horretan, Ekonomia Ministerioaren Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiaren edo Misio Diplomatiko Iraunkorraren txosten batek ordeztuko du, Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatuaren izaerari buruzkoa.

2.- Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak edozein unetan eskatu ahal izango dute lizitatzaileek beren erantzukizunez adierazitako baldintzak betetzen dituztela dokumentu bidez justifikatzeko.

Lizitatzaileak behar besteko epean aurkeztu beharko du eskatutako dokumentazioa, gehienez ere 5 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Adierazitako epean errekerimendua behar bezala betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela eta prozeduratik kanpo geratuko dela ulertuko da.

20.- BIGARREN *artxibo elektronikoa: "BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA"*

1.- Ezaugarrien taulako 1.9 apartatuan balio-judizio bidez hauteman daitezkeen eta aldez aurretik ebaluatu behar diren adjudikazio-irizpideak sartu badira, lizitatzaileak BI zenbakiko artxibo elektroniko bat aurkeztu beharko du, «BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA» izenburua duena, eta bertan eskatzen den dokumentazioa jaso beharko du.

2.- Artxibo elektroniko horretan ezin izango da inola ere sartu HIRU zenbakiko artxibo elektronikoaren berezko informaziorik.

3.- Halaber, lizitatzaileak beste edozein dokumentu aurkeztu beharko du, baldin eta, hala badagokio, preskripzio teknikoen agirian berariaz adierazten bada eta aukera ematen badu egiaztatzeko eskaintzak betetzen dituela eskatutako zehaztapen teknikoak, baina ez direla

baloratuko. BI zenbakiko artxibo elektronikoan sartuko dira, baldin eta artxibo hori aurkeztea nahitaezkoa bada, edo, bestela, HIRU zenbakiko artxibo elektronikoan.

21.- HIRUGARREN *artxibo elektronikoa: "NEGOZIAZIO-ALDERDIAK: ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA"*

1.- "NEGOZIAZIO-ALDERDIAK: ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ EBALUA DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA" izeneko artxibo elektroniko honetan, eskaintza ekonomikoa eta formulak aplikatuz ebaluatu beharreko gainerako dokumentuak sartu beharko dira.

2.- Proposamenek IX. eranskineko ereduaren araberakoak izan beharko dute, eta ez dira onartuko Administrazioak eskaintza kontuan hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi jakitea eragozten duten omisioak, akatsak edo zirriborroak dituztenak. Lizitatzaileen eskaintza ekonomikoek, partida independente gisa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa adierazi beharko dute, baldin eta jasanarazi behar bada.

Bai eskaintza ekonomikoa bai artxibo honetako gainerako dokumentazioa ezaugarrien taulako 1 9 atalean adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko dira.

3.- Proposamenen batek lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua funtsean aldatzen badu, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena egiten badu, edo enpresa lizitatzaileak proposamen hori bideraezin bihurtzen duen akatsa edo funsgabetasuna duela onartzen badu, kontratazio-mahaiak baztertu egingo du proposamen hori, ebazpen arrazoitu baten bidez. Aitzitik, ereduko hitz batzuk aldatzea edo ez aipatzea, batek edo besteak bere zentzua aldatzen ez badu, ez da nahikoa arrazoi izango proposamena baztertzeko.

4.- Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, hargatik eragotzi gabe aldaerak onartzeari buruz SPKLren 142. artikuluan xedatutakoa. Era berean, ezin izango du proposamenik izenpetu beste enpresa batzuekin aldi baterako enpresa-elkarte gisa agertuta, banaka agertu bada, ez eta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan ere. Printzipio hori urratuz gero, aldi berean aurkeztutako eskaintza guztiak ezetsiko dira.

5.- Proposamena aldi baterako enpresa-elkarte batek egiten badu, elkartea osatzen duten guztiek sinatu beharko dute proposamena, zuzenean edo ordezkari baten bitartez.

6.- Ezaugarrien koadroko 1.3 atalak aldaerak aurkezteko aukera ematen duenean, oinarriari dagokion eskaintza ekonomikoaz gain, artxibo horretan aldaera bakoitzeko eskaintza ekonomiko bat sartu ahal izango da. Aldaera bakoitzari dagokion eskaintza ekonomikoa baldintza-agiri honen IX. eranskineko ereduaren arabera egingo da, eta apartatu horretan adierazitako kontzeptuak eta baldintzak jasoko ditu.

22.- Aldaerak onartzea

1.- Aldaerak onartzen badira, lizitatzaile bakoitzak aurkezten duen proposamen bakarrak kontratuaren objektuari dagokionez egokitzat jotzen dituen irtenbide guztiak jaso ahal izango ditu, preskripzio tekniko partikularren agirian ezarritako baldintza, modalitate eta ezaugarri teknikoekin (ezaugarrien taulako 1.3 apartatuan laburtuta daude). Aldaerak ezaugarrien taulako atal honetan bertan ezarritako moduan aurkeztuko dira, eta ezingo dute kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditu.

2.- Nolanahi ere, enpresa lizitatzaileek proposamen bat egin beharko dute, eskatutako oinarrizko zerbitzua emateari buruzkoa, oso-osorik eta hitzez hitz. Proposamen horrek prestazioa gauzatzeko epea eta prezioa izan beharko ditu, bi kasuetan ezaugarrien taulan jasotakoen berdina edo txikiagoa, eta bat etorri beharko dute aurkeztutako lan-programan jasotakoekin.

23.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak

1.- Proposamenak aurkezteak esan nahi du enpresa lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza-agiri honetako eta preskripzio teknikoen agiriko klausulak, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, bai eta kontratazio-mahaiari eta -organoari baimena ematen diela Sektore

Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

Baldintza-agiriei men ez egiteak eskaintza ez onartzea dakar nahitaez.

2.- Lizitatzaileek ezin izango dute beren proposamena erretiratu 15 egun naturaleko epean, proposamenak irekitzen direnetik zenbatzen hasita, adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa izan denean, edo bi hilabeteko epean, kontratua adjudikatzeko beste irizpide batzuk kontuan hartu direnean, SPKLren 158.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Epe hori 15 egun baliodunez luzatuko da SPKLren 149. artikuluan, eskaintza nabarmenki baxuei buruzkoan, aipatzen diren izapideei jarraitu behar zaienean.

3.- Proposamen bat bidegabeki kentzen bada, lizitatzaileak ezingo du administrazio publikoekin kontraturik egin, SPKLren 71.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, era berean, behin-behineko bermea konfiskatu beharko du, SPKLren 106.1 artikuluaren arabera, halakorik eskatu bada.

24.- Kontratazio-mahaia

1.- Kontratazio-mahaia izango da eskaintzak baloratzeko eskumena izango duen organo teknikoa, eta SPKLren 326. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jardungo du, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21. eta 22. artikuluekin bat etorriz, haien osaera eta eginkizunak garatzen baitituzte.

2.- Osaera ezaugarrien koadroko 2 9 atalean jasotzen da, eta kontratatzailearen profilaren bidez argitaratuko da, lizitazio-iragarkiarekin edo, bestela, eratu aurretik, betiere profil horretako iragarki espezifiko baten bidez.

3.- Kargua hutsik badago, gaixorik badago edo justifikatutako edozein arrazoirengatik kanpoan badago, kontratazio-mahaiko kideak ordezkatzeko araubide hau ezartzen da:

- Batzordeburua: batzordekideek ordeztuko dute haren titulartasuna, baldintza-agiri honetako ezaugarrien taulan edo, hala badagokio, kontratatzailearen profilean adierazitako hurrenkera berean.
- Bokalak: oro har, titularrak dauden kudeaketa-zerbitzu edo -unitateetako funtzionarioek ordezkatuko dituzte bokalak, edo, halakorik ezean, mendeko diren zuzendaritzako beste zerbitzu batzuetako funtzionarioek. Mahaiko presidenteak izendatuko ditu bokalak. Deskribatutako moduan ordezkatzerik ez badago, saileko kudeaketa-zerbitzuei atxikitako funtzionarioek ordeztuko dituzte bokalak, mahaiko presidenteak izendatuta.
- Kontuhartzailetza eta Ikuskaritza Zerbitzuari atxikitako bokala zerbitzu horretako funtzionario batek ordezkatuko du.
- Idazkaria: kontratua kudeatzen duen sailari atxikitako funtzionario bat izango da ordezkoa, mahaiko presidenteak izendatua.

25.- Proposamenak irekitzea eta aztertzea

25.1.- BAT zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta administrazio-dokumentazioa kalifikatzea

1.- Proposamenak aurkezteko epea amaituta, lizitatzaileek garaiz eta behar bezala aurkeztutako administrazio-agiriak ireki eta kalifikatuko ditu kontratazio-mahaiak, BAT zenbakiko artxibo elektronikoan. Mahaiak ikusten baditu zuzendu daitezkeen akatsak edo omisioak aurkeztutako dokumentazioan, alderdi interesdunei jakinaraziko dizkie, eta gehienez ere 3 egun naturaleko epea emango die zuzentzeko. Era berean, mahaiak lizitatzaileei eskatu ahal izango die aurkeztutakoaren dokumentazio osagarria edo argigarria aurkezteko, eta 5 egun naturaleko epea emango die aurkezteko.

2.- Interesdunei jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egingo zaie.

3.- Azkenik, kontratazio-mahaiak zehaztuko du zein lizitatzaile onartuko diren lizitazioan, zein baztertu diren eta zergatik.

25.2.- BI zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea (BI zenbakiko artxibo elektronikoa dagoenean bakarrik)

1.- Aurkeztea nahitaezkoa bada, BI zenbakiko artxibo elektronikoak irekiko dira, «BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA» gisa identifikatuta, haien edukia ebaluatzeko, ezaugarrien taulako 1.9 apartatuan adierazitako irizpideen arabera.

2.- Egintza hori hasteko, mahaiak berariaz adieraziko du zer kalifikazio eman dien proposamenei, lizitaziorako onartu direnak eta baztertu direnak identifikatzeko, eta zergatik baztertu dituen.

3.- Lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak eta BI zenbakiko artxibo elektronikoetan formulak aplikatuz ebaluatu beharreko dokumentazioa sartzen dutenak (HIRU zenbakiko artxibo elektronikoa).

25.3.- HIRU zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea

1.- HIRU zenbakiko artxibo elektronikoak ekitaldi publikoan irekiko dira, eta, deialdian kontratatzailearen profilean hala adierazten bada, zuzenean jarraitu ahal izango da, deialdian adierazten den estekaren bidez.

2.- HIRU zenbakiko artxibo elektronikoak jendaurrean irekiko dira BI zenbakiko artxibo elektronikorik ez dagoenean, eta mahaiak egindako proposamenen kalifikazioari buruzko berariazko erabakia emango da, lizitaziorako onartutakoak, baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak identifikatzeko.

3.- Balio-iritzien bidez ebaluatuko diren irizpideak badaude, ekitaldi honetan emango da haien emaitzaren berri.

4.- Jarraian, kontratazio-mahaiak onartutako lizitatzaileen HIRU zenbakiko artxibo elektronikoak irekiko ditu, «NEGOZIAZIO-ALDERDIAK: ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULAK APLIKATUZ EBALUATU DAITEKEEN DOKUMENTAZIOA» izenekoak, eta eskaintza ekonomikoak irakurriko ditu.

5.- Artxibo elektroniko horietan dagoen dokumentazioa ezaugarrien taulako 1.9 apartatuan adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko da.

6.- Nolanahi ere, irizpide horien ebaluazioa BI zenbakiko artxibo elektronikoetan jasotako dokumentazioa baloratu ondoren egingo da beti.

25.4.- Kontratazio-mahaiaren aktak

Aurreko apartatuen arabera egindako guztia dagozkion aktetan jasoko da, eta, akta horietan, prozeduraren emaitza eta gorabeherak jasoko dira.

26.- Kontratazio-mahaiaren egintzen emaitzak argitaratzea eta eragindako lizitatzaileei jakinaraztea

1.- Eskaintzen kalifikazioa, onarpena edo baztertzea kontratatzailearen profilean argitaratuko dira. Kanpoan geratuko da indarrean dagoen legeriaren arabera argitaratu ezin den informazioa. Hori guztia, dagokion moduan, eragindako lizitatzaileei komunikazioa edo jakinarazpena egitearen kaltetan izan gabe.

2.- Lizitatzaile bat kanporatzeko egintza egintza publiko berean jakinarazi ahal izango zaio lizitatzaile horri, ahal bada enpresaren ordezkaria egintza horretan bertan dagoelako, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerako prozeduren arabera.

3.- Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpena ezetsitzat joko da jakinarazpena eskura jartzen denetik 10 egun natural igarotzen direnean haren edukira sartu gabe; eta epearen barruan jakinarazteko betebeharra betetzat joko da jakinarazpena Azpeitiko Udalaren egoitza elektronikoan eskura jartzen denean.

27.- Esleitzeko irizpideak

1.- Kontratua esleitzeko kontuan hartu beharreko irizpideak eta horien ponderazioa, bai oinarrizko eskaintzari bai aldaerei aplikatu beharrekoak, lizitazio-iragarkian eta ezaugarrien taulako 1.9 atalean ezarritakoak izango dira.

2.- Eskaintzak aurkezten dituzten enpresek ez badituzte betetzen ezaugarri-koadroko 1 9 atalean adierazitako ezaugarri formalak, paperaren tamainari, marjinei, letra-motari eta testu idatzien lerroarteari dagokienez (grafikoak, argazkiak, diagramak... alde batera utzita), errekerimendua egingo zaie beren eskaintza formalki zuzen dezaten, eskaintzaren eduki materiala aldatu gabe. Eduki hori aldatuz gero, prozeduratik kanpo geratuko da berehala.

Errekerimendua egin ondoren, informaltasunak jarraitzen badu, proposamenak ez dira baloratuko dagokion adjudikazio-irizpideari dagokionez, eta ez betetze horrek ez du inola ere ekarriko adjudikazio-prozeduratik baztertzea.

3.- Ezaugarri formal horiek betetzen dituzten proposamenak ez dira inola ere prozeduratik kanpo geratuko, baldin eta aipatutako 1 9 apartatuan esleipen-irizpideekin lotutako apartatu bakoitzerako ezarritako gehieneko luzera (azalak eta indizeak kontuan hartu gabe) gainditzen badute. Adierazitako gehieneko luzera gainditzen bada, baimendutako gehieneko orri-kopurua arte baloratuko da edukia.

4.- Enpresa lizitatzaileren batek ez badu esleipen-irizpideei buruzko dokumentazioa aurkezten, enpresa horren proposamena ez da baloratuko dagokion irizpidearen arabera. Proposamenak ez dira inola ere esleipen-prozeduratik kanpo utziko arrazoi horrengatik.

28.- Eskaintzak baloratzea

1.- Bere eginkizunak betetzeko, mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, SPKLren 146.2.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2.- Kontratazio-mahaiak baztertu egingo ditu baldintza teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak.

3.- Balio-judizio baten bidez baloratzeko irizpideak haztapen osoaren % 50 baino gehiago badira, kualifikazio egokia duten adituek edo erakunde tekniko espezializatu batek osatutako batzorde batek egingo du BI zenbakiko artxibo elektronikoaren aurretiazko ebaluazioa. Batzorde hori berariaz adieraziko da ezaugarrien taulako 1.9 apartatuan, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Atal honetan, adituen batzordeak edo erakunde tekniko espezializatuak baloratu beharreko irizpide zehatzak jasoko dira, bai eta horiek balorazioa egiteko epea eta balorazioa kuantifikatzeko gehieneko eta gutxieneko mugak ere.

28.1- Kontratuaren baldintzak negoziatzea.

Kontratazio-organoak dokumentazioa kalifikatzeko jarduketak egingo ditu, eta karatulako 19. apartatuan adierazitako alderdiei buruzko hautaketa-irizpideak, eskaintzak irekitzeko irizpideak eta negoziazio-irizpideak aplikatuko ditu.

Negoziatu beharreko alderdiak jasotzen dituen 3. artxiboa ireki ondoren, kontratazio-organoak 3 egun balioduneko epea emango die enpresa lizitatzaileei eskaintzak hobetzeko.

Epe hori igaro eta azken eskaintzak ireki ondoren, baldintza-agiri honen 33. apartatuaren arabera sailkatuko ditu eskaintzak.

29.- Eskaintzak argitzea

Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak aurkeztutako eskaintzei buruzko argibideak eskatu ahal izango dizkiete lizitatzaileei, edo eskaintza horien idazketan akats material nabarmenak zuzendu behar badituzte, betiere tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatzen

bada eta eskaintzen baldintzak inola ere aldatu ezin badira. Espedientean jasota utzi beharko da egindako guztia.

30.- Balio anormalki baxuegiak dituzten eskaintzak

1.- Kontratazio-organoak, ezaugarrien taulako 1 9 atalean, parametro objektiboak ezarriko ditu, eta horien arabera ulertuko da proposamena ezin dela bete, anormalki baxutzat jotzen delako.

2.- Ustez anormaltasuna duten proposamen bat edo batzuk identifikatzen direnean, kontratazio-mahaiak edo, halakorik ezean, kontratazio-organoak lizitatzaileari edo lizitatzaileei eskatu beharko die justifikatu eta xehatu ditzatela, arrazoituta eta xehetasunez, eskaintzaren anormaltasuna definitu duten proposamenaren parametroak, SPKLren 149. artikuluaren 4. apartatutik 6.era bitartean aurreikusitako prozedura izapidetuz, eta, emaitza ikusita, kontratazio-organoari proposatu beharko diote onartzeko edo baztertzeko.

31.- Prozedurako ondorengotza

1.- Prozedura bat izapidetzen den bitartean eta kontratua formalizatu aurretik enpresa-ondarearen edo jarduera-adar baten bat-egite, zatiketa edo eskualdatze bat gertatzen bada, enpresa lizitatzaile edo hautagaiaren ondorengoa izango da prozeduran duen posizioan sozietate xurgatzailea, bat-egitearen ondoriozkoa, zatiketaren onuraduna edo enpresa-ondarearen edo dagokion jarduera-adarraren eskuratzailea, betiere gaitasuna badu eta kontratatzeko debekurik ez badu eta kaudimena eta sailkapena egiaztatzen baditu adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izateko administrazio-klausula partikularren agirian eskatutako baldintzetan.

2.- Aurreko apartatuan aipatutako eragiketak enpresa-elkarteen barruan egiaztatzen direnean, SPKLren 69. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

32.- Administrazioak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartzea eta esleipen-prozeduran atzera egitea.

1.- Kontratazio-organoak kontratua formalizatu aurretik erabaki ahal izango du ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia, bai eta adjudikazio-prozeduran atzera egitea ere, SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera. Erabaki hori lizitatzaileei jakinaraziko die, eta Europako Batzordeari ere jakinaraziko dio, kontratua Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean iragarri bada.

2.- Bi kasuetan, hautagai gaiei edo lizitatzaileei baldintza-agiri honetako ezaugarrien koadroko 2.6 apartatuan adierazten den zenbatekoa ordainduko zaie.

33.- Esleipena

33.1.- Eskaintzen sailkapena eta adjudikazio-proposamena

Eskaintzak baloratu ondoren, kontratazio-mahaiak kontratazio-organoari bidaliko dizkio, aktarekin batera, dagokion balorazioa eta adjudikazio-proposamena. Proposamen horretan, eskaintzak beheranzko ordenan jarriko dira, eta haietako bakoitzari emandako puntuazioa adieraziko da, ezaugarrien taulako 1.9 apartatuan adierazitako irizpideak aplikatuz eta kalitate-prezio erlazio onena duena identifikatuz.

Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez dio inolako eskubiderik ematen proposatutako lizitatzaileari, eta ez ditu eskuratuko Administrazioaren aurrean, kontratua formalizatu arte.

Kontuan hartu beharreko irizpide bakarra prezioa denean, eskaintzarik onena preziorik baxuena duena dela ulertuko da.

33.2.- Kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiko baldintzak betetzen dituela justifikatzeko dokumentazioa aurkeztea

1.- Kontratazio-organoak mahaiaren proposamena onartu ondoren, zerbitzu horiek eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko diote 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, kontratua adjudikatzeko beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa aurkezteko.

Dokumentazio hori honako hau izango da:

a) **Jarduteko** gaitasuna eta jarduera-eremua egiaztatzen duten agiriak. Enpresa pertsona juridikoa bada, jarduteko gaitasuna eraketa- edo aldaketa-eskritura aurkeztuz egiaztatuko da, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, aplikatzekoa den merkataritza-legeriaren arabera betekizun hori eska daitekeenean. Baldintza hori eskatzen ez bada, jarduteko gaitasuna eratze-eskritura edo -agiriaren, estatutuen edo sortze-aktaren bidez egiaztatuko da. Agiri horretan jarduera arautzen duten arauak jasoko dira, eta, hala badagokio, dagokion erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira.

   Pertsona juridikoei beren estatutuen edo sorrerako arauen arabera berezko dituzten helburuen, xedearen edo jarduera-eremuaren barruan sartzen diren prestazioak eskaintzen dizkieten kontratuak bakarrik esleitu ahal izango zaizkie. Aurkeztutako dokumentazioan egiaztatu beharko da hori.

   Enpresa indibiduala bada, nortasun-agiri nazionala edo horren ordezko agiria aurkeztu beharko da.

b) **Hala** badagokio, ordezkaritza egiaztatzen duten dokumentuak. Beste baten izenean agertzen diren edo proposamenak sinatzen dituzten pertsonek NANaren kopia aurkeztu beharko dute, bai eta horretarako behar besteko ahalordea ere.

   Ordezkariak ez badu NANik, erregelamendu bidez ordeztuko duen dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko du, notarioak legeztatuta edo administrazio-organo eskudunak konpultsatuta.

   Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du. Hala ere, ahalordea egintza jakin baterako bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatzea, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94.1.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) **Ekonomia-** eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala. Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzea, SPKLren 87. eta 90. artikuluetan aurreikusitako bitartekoren baten bidez. Bitarteko horiek lizitazio-iragarkian eta ezaugarrien taulako 1.5 apartatuan zehaztuko dira.

   Aldi baterako enpresa-elkarteetan, haien kaudimena zehazteko, elkarte horietako kide bakoitzaren ezaugarriak metatuko dira (APKLEO, 24.1 artikulua).

   Espainiakoak ez diren eta Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako nazionalak diren lizitatzaileek, Espainian sailkatuta ez badaude, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute, sailkapenaren ordez, SPKLren 87. eta 88. artikuluetan ezarritako moduan, eta kontratazio-organoak ezaugarrien taulako 1.5 apartatuan aurreikusitako bitartekoen bidez.

   Ondorio horietarako, Europar Batasuneko estatu kideek ezarritako kontratatzeko baimena duten enpresaburuen zerrenda ofizialak eramateko eskumena duten organoek emandako inskripzio-ziurtagiriak, ziurtagiria ematen duen estatu kidean kokatutako enpresaburuei buruzkoak, gaitasun-presuntzioa izango dira haietan agertzen diren hautaketa kualitatiboko betekizunei dagokienez.

   Presuntzio-balio bera izango dute, horietan ziurtatutako alderdiei dagokienez, ziurtapen-erakunde eskudunek emandako ziurtagiriek, lizitatzailea ezarrita dagoen estatu kideko legeriaren arabera emandako ziurtapen-arau europarrei erantzuten badiete.

   Aurreko apartatuan aipatutako dokumentuetan, enpresaburua zerrendan inskribatzeko edo ziurtagiria emateko erabili diren erreferentziak adierazi beharko dira, bai eta lortutako sailkapena ere.

d) **Kontratuaren** xede den prestazioa egiteko enpresa- edo lanbide-gaikuntza egiaztatzea. Kontratatzeko gaitasun gisa legez eska badaiteke, kontratu honen xede den prestazioa

egiteko enpresa- edo lanbide-gaikuntza egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

e) Giza baliabideak eta baliabide materialak badituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea, ezaugarrien taulako 1 6 atalean adierazitako profil eta zehaztapenekin.

f) **Kaudimena** kanpoko baliabideen bidez egiaztatzeko (SPKL, 75. art.), kontratua gauzatzeko giza baliabide eta baliabide material horiek benetan badituela frogatu beharko da, erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztuta.

Lizitatzaileak bere kaudimena egiaztatzeko aurkeztu dituen baliabide berberekin gauzatuko du kontratua. Aurreikusi ezin diren arrazoiengatik soilik ordeztu ahal izango ditu, kaudimen baliokidea egiaztatzen duten beste bitarteko batzuekin eta Administrazioaren baimenarekin.

g) **Ingurumen-kudeaketako** eta kalitate-bermeko arauak betetzearen ziurtagiriak. Ezaugarrien taulako 1.5 atalean hala aurreikusten bada, eta bertan adierazitakoaren arabera.

h) **Zerga-betebeharrak** eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Lizitatzaileak lurralde batean baino gehiagotan ordaindu behar baditu zergak, administrazio eskudun guztiek emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu. Kontratua kudeatzen duen organoari baimena eman ahal izango dio Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari dagokion ziurtagiria eskatzeko.

i) 250 langiletik gorako enpresek berdintasun-plan bat dutela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

j) **Desgaitasuna** duten langileen kopurua egiaztatzen duen dokumentazioa. 50 langile edo gehiago dituzten enpresek % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen erreserba-kuota betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute, edo, modu osagarrian edo subsidiarioki, ordezko gisa har daitezkeen neurriak betetzen direla egiaztatzen duena, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan eta hura garatzeko araudian aurreikusitakoaren arabera.

k) **Ekonomia-jardueren** gaineko zergari lotutako jarduerak egiten direnean: uneko ekitaldiko alta edo azken ordainagiria, aipatutako zergaren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, eta, hala badagokio, salbuetsita egotearen erantzukizunpeko adierazpena.

l) Behin betiko bermea eratzea bidezkoa bada, honela gordailutu ahal izango da:

Banku-kontuaren nazioarteko kodea duen kontuan

2095 5029 11 1060024535 KUTXABANK, bermeak eskudirutan direnean; orduan, gordailu hori egiaztatzen duen frogagiria sartu beharko da.

Idatzoharrean jasotako baloreak ibilgetzeko ziurtagiriak, abalak edo kauzio-aseguruen ziurtagiriak direnean, kontratazio-organoaren aurrean (ikus abal-eredua VIII. eranskinean).

2.- Aurrekoa gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria aurkezteak enpresa lizitatzailea salbuetsiko du, bertan jasotakoaren arabera eta kontrakorik frogatu ezean, erregistroan jasota dauden inguruabarren egiaztagiriak aurkeztetik.

Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatzeko ziurtagiria aurkezteak SPKLren 87.2 eta 96. artikuluetan eta SPKL partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Ziurtagiriekin batera erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, ziurtagirian jasotakoa ez dela aldatu adierazten duena.

Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren inskripzioan egiaztatu beharreko baldintzaren bat agertzen ez bada, enpresak SPKLn aurreikusitako bitartekoren baten bidez justifikatu beharko ditu.

Enpresa Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta badago edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazional batean agertzen bada, hala nola enpresaren espediente birtual batean, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema batean edo aurrekalifikazio-sistema batean, eta organo horiek doan eskuratu baditzakete, ez du zertan aurkeztu toki horietan inskribatutako datuen egiaztagiriak edo beste dokumentu-froga bat, eta lizitatzaileak dagokion erregistroan edo datu-basean inskribatuta dagoela berariaz adieraztea baino ez da beharko.

3.- Aurreko bi apartatuetan aipatutako agiriak ezarritako epean behar bezala betetzen ez badira, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZik gabe, zigor gisa. Zenbateko hori, lehenik eta behin, behin-behineko bermearen aurka ordainduko da, halakorik eratu bada.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera (SPKLren 150.2 artikulua).

4.- Lizitatzaileak klausula honetan ezarritakoa epe barruan betetzen ez badu doloa, errua edo zabarkeria dela medio, kontratatzeko debekua duela deklaratu ahal izango da, SPKLren 71.2 a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

33.3.- Behin betiko bermea

1.- Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak, SPKLren 145. artikuluan xedatutakoaren arabera, behin betiko bermea eratu beharko du kontratazio-organoaren eskura. Zenbatekoa lizitatzaileak eskainitako azken prezioaren % 5 izango da, balio erantsiaren gaineko zerga kenduta. Berme honen eraketa hamar egun balioduneko epean egiaztatu beharko da, SPKLren 150.2 artikuluko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

2.- Ezaugarrien taulako 1.8 apartatuan agertzen den behin betiko bermea SPKLren 108. artikuluan eta HAKLEOren 55. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako moduetako edozeinetan eratu ahal izango da. Enpresa esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, Administrazioak ez du esleipena bere alde egingo.

3.- Ezaugarrien taulako atal horretan hala aurreikusten bada, prezioan atxikipena eginez eratu ahal izango da.

Prezioari atxikiz eratzen bada, kontratistari jasanaraziko zaio behin betiko bermea, berariazko baimena eman ondoren, eta bermearen zenbatekoa lehenengo fakturatik eta ondorengoetatik kenduko da, harik eta berme osora iritsi arte.

4.- Berme horren gainean ordaintzen badira kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak, berme hori birjarri edo handitu egin beharko du kontratistak, kontratua gauzatzen denetik 15 egun naturaleko epean, eta, hala egin ezean, kontratua suntsiarazi egin beharko da.

5.- Kontratua aldatu delako prezioa ere aldatzen bada, bermea egokitu egin beharko da 15 egun naturaleko epean, kontratua aldatzeko erabakia esleipendunari jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita, aldatutako prezio berriarekiko proportzio egokia gorde dezan.

6.- Nolanahi ere, behin betiko bermeak SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzungo die. Kontzeptu horien barruan sartzen da kontratistak ez betetzea kontratuaren xede diren prestazioak behar ez bezala gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra, SPKLren 196. artikuluan aurreikusitakoa.

7.- Behin-behineko bermea eratzen den kasuetan, esleipendunak, aukeran, behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betikoari aplikatu ahal izango dio, edo behin betikoa berriro eratu ahal izango du.

8.- Berme osagarria SPKLren 107.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera ezarriko da, eta, hala badagokio, ezaugarrien taulako 1.8 apartatuan xedatutakoa beteko da.

33.4.- Esleipena

1.- Kontratazio-organoak 33.2 klausulan aipatzen den dokumentazioa jaso eta 5 egun balioduneko epean adjudikatu beharko du kontratua.

Hala ere, kontratuaren adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa denean, esleipena gehienez ere hamabost eguneko epean egin beharko da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik aurrera.

Ezin izango da lizitazio bat esleitu gabe utzi, baldin eta baldintza-agirian agertzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

2.- Adjudikazio-ebazpena arrazoitua izan beharko da, eta enpresa lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epean.

3.- Enpresa esleipendunak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplika dakiekeela deklaratzen duen hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa adjudikazio-ebazpenean jasoko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

4.- Aurreko 2. apartatuan aipatzen den jakinarazpenak eta publizitateak behar den informazioa jasoko dute adjudikazio-prozeduran interesa duten pertsonek adjudikazio-erabakiaren aurka behar bezala oinarritutako errekurtsoa jarri ahal izateko, eta, bereziki, SPKLren 151.2 artikuluan eskatzen dena.

5.- Esleipenaren arrazoiei SPKLren 155.3 artikuluan jasotako konfidentzialtasun-salbuespena aplikatuko zaie.

6.- Nolanahi ere, jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean adieraziko da zer epetan formalizatu behar den, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera.

7.- Azpeitiko Udalaren egoitza elektronikoan agertuz egingo da jakinarazpena.

34.- Kontratua formalizatzea

1.- Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den administrazio-agiri batean formalizatu beharko da, eta dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Hala ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eskatu ahal izango du kontratistak, eta bere kontura izango dira dagozkion gastuak. Kontratua formalizatzeko agirian ezingo da inola ere sartu esleipenaren baldintzak aldatzea dakarren klausularik.

2.- Kontratua formalizatzearekin batera burutuko da, eta ezin izango da inola ere hasi kontratua exekutatzen aldez aurretik formalizatu gabe.

3.- Kontratua sinatu aurretik, adjudikaziodunaren ordezkariak honako hauek aurkeztu beharko dizkio kontratazio-organoari:

a) Nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak.
b) Adjudikazioduna aldi baterako enpresa-elkarte bat bada, haren eraketaren eskritura publikoa, esleitutako IFK eta ahalorde nahikoa duen ordezkariaren izendapena.
c) Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak edo Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialak emandako ziurtagiria aurkeztu bada, adjudikaziodunak berriro adierazi beharko du ziurtagiria ematea eragin zuten inguruabarrak indarrean daudela.

4.- Kontratuaren aurka kontratazio-arloko errekurtso berezia jar badaiteke, formalizazioa ezin izango da egin lizitatzaileei adjudikazioaren jakinarazpena bidali eta 15 egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Kontratazio-organoak errekerimendua egingo dio adjudikaziodunari, gehienez ere 5 egun naturaleko epean formaliza dezan kontratua, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro ondoren kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik aurkeztu ez bada. Modu berean jokatuko da errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etendura kentzen duenean.

5.- Gainerako kasuetan, esleipendunak esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, gehienez ere 15 egun balioduneko epean formalizatu beharko da kontratua.

6.- Berariaz sartu beharko dira kontratuaren edukian adjudikaziodunak proposamen teknikoan bere gain hartzen dituen betebeharrak, gizarte- eta ingurumen-alderdiei buruzko adjudikazio-irizpide gisa baloratutako alderdiei dagokienez, foru-sektore publikoaren kontratazioan erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu-klausulak txertatzeari buruzko urriaren 29ko 11/2014 Foru Arauaren 11.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

7.- Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, kontratua ez bada formalizatu adierazitako epearen barruan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZik gabe, zigor gisa, eta, lehenik eta behin, behin betiko bermearen aurka ordainduko da, eratu bada, hargatik eragotzi gabe kontratatzeko debekuaren eraginpean dagoela deklaratzea, SPKLren 71.2.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

8.- Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak administrazioari egoztekoak badira, berandutzeak eragin diezazkiokeen kalte-galeren kalte-ordainak emango zaizkio kontratistari.

9.- Kontratuaren formalizazioaren berri emango da, SPKLren 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.

III. KAPITULUA - KONTRATUA GAUZATZEA

35.- Kontratuaren arduraduna

1.- Kontratazio-organoak, kontratua adjudikatzeko ebazpenean, kontratuaren arduradun bat izendatuko du. Pertsona horrek kontratuaren betearazpena gainbegiratuko du, eta beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu, hitzartutako prestazioa behar bezala ematen dela ziurtatzeko.

Era berean, kontratuaren arduradunak laguntzaileak eduki ahal izango ditu, titulu profesionalen edo ezagutza espezifikoen arabera. Horiek kontratua adjudikatzeko ebazpenean bertan identifikatuko dira, edo, une horretan hori ezinezkoa bada, geroagoko ebazpen batean.

Kontratuaren arduraduna enpresa adjudikaziodunaren eta kontratazio-organoaren arteko solaskidea da.

2.- Beren eginkizunak betetzeko, arduradunak eta harekin lankidetzan aritzen direnek sarbide librea izango dute kontratuaren objektuaren prestazio-lekuetara, eta egokitzat jotzen dituzten ikuskapenak egin ahal izango dituzte, segurtasun- eta osasun-koordinatzaile izendatutako pertsonaren laguntzarekin, betiere kokaleku horiek eta haien baldintza teknikoak erabakigarriak badira kontratuaren objektua diren prestazioak garatzeko. Kasu horietatik kanpo, kontratuaren arduradunak informazioa eskuratzeko beharra justifikatu beharko du, berariaz eta zehatz-mehatz, administrazio-espedientean, eta kontratazio-organoak aldez aurretik berretsi beharko du.

Era berean, egokitzat jotzen duten informazioa eta dokumentazioa eskatu ahal izango dute, eta kontratuaren objektua behar bezala gauzatzeko eta hura gauzatzean gerta daitekeen edozein gorabehera konpontzeko beharrezkoak diren bilerak sustatu eta deitu ahal izango dituzte.

3.- Kontratuaren arduradunak ezarriko ditu jarraibide egokiak.

Zehazki, honako eginkizun hauek dagozkio:

-) Exekuzioa kontratuaren baldintzetan eta aurreikusitako iraupen-epean egiten dela egiaztatzea. Funtzio horrek aukera emango du kontratuaren kalitate-baldintzak eta klausula sozialak, ingurumenekoak, sozialak eta berritzaileak betetzen dituen egiaztatzeko beharrezkoak diren ekintzak garatzeko.
-) Edozein motatako ez-betetzeen berri ematea kontratazio-organoari, eta, hala dagokionean, honako hauek proposatzea: zigorrak ezartzeko prozedura hastea, kontratua etetea, kontratua suntsiaraztea eta beste neurri batzuk hartzea kontratua behar bezala betetzen dela bermatzeko edo administrazioari enpresa kontratistaren ez-betetzeak eragindako kalte-galeren ordaina emateko.
-) Kontratuan behar den edozein aldaketa gomendatzea, hala nola espezifikazioak, jarraibideak edo eragiketa eraginkorragoak ematen dituzten beste baldintza batzuk.

) Kontratazio-organoaren jarraibideen arabera, kontratuari atxikitako giza baliabideak edo baliabide materialak aldatzeko baimena ematea, kontratua aldatzea ez dakarten kasuetan.

) Luzapenen beharraren eta bidezkotasunaren berri ematea eta arrazoitzea.

) Enpresa kontratistak azpikontratistei ordaintzeko betebeharra betetzen duela egiaztatzea, hala badagokio.

4.- Kontratua gauzatu bitartean kontratuaren arduradunaren edo laguntzaileen izendapena aldatzen bada, idatziz jakinaraziko zaio enpresa kontratistari, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

36.- Kontratistaren ondorengotza

1.- Enpresen edo horien jarduera-adarren bat-egite, zatiketa, ekarpen edo eskualdatze kasuetan, kontratuak aurrera jarraituko du kontratua esleitzen zaion erakundearekin, eta kontratutik eratorritako eskubide eta betebeharretan subrogatuta geratuko da, SPKLren 98. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen badira. Kontratista aldi baterako enpresa-elkartea bada, SPKLren 69.9 artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

2.- Kontratistak modu frogagarrian jakinarazi beharko dio Administrazioari bere nortasun juridikoari eragiten dion edozein aldaketa, eta dagozkion fakturak ordaintzeko legez aurreikusitako epeen zenbaketa eten egingo da aldaketa horiek egiaztatzen diren arte.

3.- Subrogazioa ezinezkoa bada, kontratua esleitzen zaion erakundeak beharrezko kaudimen-baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua suntsiarazi egingo da, eta adjudikaziodunaren erruz suntsiarazi beharreko kasutzat hartuko da ondorio guztietarako.

37.- Kontratua lagatzea

1.- Pertsona edo enpresa esleipendunak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratutik eratorritako eskubideak eta betebeharrak, baldin eta pertsona edo enpresa horren ezaugarri teknikoak edo pertsonalak ez badira kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria izan, eta lagapenak ez badu merkatuko lehia benetan murrizten.

2.- Kontratistak bere eskubideak eta betebeharrak hirugarrenei laga ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik baimena ematea lagapena egiteko.

b) Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez gauzatuta edukitzea.

c) Enpresa lagapen-hartzaileak kontratatzeko gaitasuna izatea eta kontratuaren exekuzio-fasearen arabera eska daitekeen kaudimena izatea; behar bezala sailkatuta egon beharko da, baldin eta lagatzaileari betekizun hori eskatu bazaio, eta kontratatzeko debekurik ez izatea.

d) Lagapena eskritura publiko bidez formalizatzea enpresa esleipendunaren eta enpresa lagapen-hartzailearen artean.

3.- Lagapen-hartzailea lagatzaileari legozkiokeen eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

38.- Enpresa kontratistaren baldintzak eta betebeharrak

38.1.- Baldintza orokorrak

1.- Kontratua gauzatzeko, zorrotz bete beharko dira agiri honetan ezarritako klausulak, baldintza teknikoen agiria eta kontratuaren arduradunak kontratistari kontratua interpretatzeko ematen dizkion jarraibideak.

2.- Adjudikazioduna izango da zerbitzuaren xede diren ondasunen kalitatearen erantzulea, bai eta kontratua gauzatzean egindako omisioek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek Administrazioari edo hirugarrenei eragindako ondorioen erantzulea ere.

3.- Pertsona edo enpresa kontratistak ekipamendu eta giza baliabide egokiekin eman beharko du zerbitzua, eta une oro erantzun beharko die lanen martxaren ondoriozko beharrei. Proposamenean jasotako baliabide teknikoak ere emango ditu, eta, oro har, lanak behar bezala egiteko behar diren guztiak.

4.- Kontratistak, nolanahi ere, erantzukizun zibileko aseguru bat eduki beharko du, kalteen erantzukizun posiblea estaliko duena. Enpresa esleipendunak kontratu horren kopia aurkeztu beharko du, bai eta kontratua sinatu aurretik ordaindutako azken ordainagiriaren kopia ere. Gainera, ezaugarrien koadroko 2 4. apartatuan hala ezartzen bada, adierazitako estaldurak ziurtatu beharko ditu, eta zehazten diren aseguru gehigarriak izan beharko ditu.

Nolanahi ere, enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu aseguru-polizetan ezarritako mugak gainditzen dituzten kalte-galerak, bai eta poliza horiek estaltzen ez dituzten ondasun eta arriskuak ere.

5.- Administrazioak erabakiko du kontratistak egindako prestazioa kontratua gauzatzeko eta betetzeko ezarritako preskripzioekin bat datorren, eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak egiteko eta prestazioak jasotzean ikusitako akatsak zuzentzeko eskatuko du. Kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsen ondorioz, egindako lanak ez bazaizkio kontratatutako prestazioari egokitzen, uko egin ahal izango dio, eta ordaintzeko betebeharretik salbuetsita geratuko da, edo ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du, hala badagokio.

6.- Lizitaziora aurkezten diren enpresek borondatez onartzen dute gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleipen- eta egikaritze-prozesuetatik eratorritako datu guztiei, prozesu horiek amaitu arte.

38.2.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak

1.- Hala badagokio, aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko abenduaren lehen hamabostaldian, eta, nolanahi ere, kontratua jaso aurreko hilabetearen barruan, enpresa kontratistak, X. eranskinaren arabera, ebaluazioa aurkeztu beharko du, kontratua gauzatu bitartean, izaera sozialeko adjudikazio-irizpideei eta exekuzio-baldintza bereziei buruzkoa.

2.- Kontratuaren parte diren exekuzio-baldintza berezi guztiak eskatuko zaizkie, era berean, kontratua egikaritzen parte hartzen duten azpikontratista guztiei.

3.- Ezaugarrien taulako 20. atalean aurreikusitakoez gain, betearazteko betebehar bereziak dira honako hauek:

38.2.1.- Laneko, gizarteko eta ingurumena babesteko betebeharrak

1.- Kontratistak nahitaez bete beharko ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan, laneko segurtasun eta osasunaren arloan eta ingurumena babestearen arloan indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak, bai eta baldintza-agiri hauetan ezartzen direnak ere.

2.- Kontratistak enpresa kontratistaren jarduera kokatzen den sektoreko eremu baxueneko azken hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako lan-baldintzak aplikatuko dizkie kontratua egikarituko duen plantillari, hargatik eragotzi gabe hartan xedatutakoa hobetzen duten eta indarrean dauden beste enpresa-hitzarmen edo -itun batzuk.

3.- Kontratua gauzatzen den bitartean, enpresa kontratistak kontratuari atxikitako langileen lan-baldintzei eutsi beharko die, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboaren arabera, eta ez ditu okerragotuko. Nolanahi ere, hitzarmen horrek indarraldia galdu ahal izango du ondoren, hitzarmen kolektiboen indarraldia amaitzeari buruzko legezko edo hitzarmenezko aurreikuspenak aplikatuz. Betebehar hori betetzat joko da, baldin eta, hala badagokio, indarra galdu aurreko unean indarrean zeuden lan-baldintzei eusten bazaie. Nolanahi ere, lan-baldintzak mantentzeko betebeharra ere betetzat joko da, baldin eta baldintza horiek aldatu badira enpresa kontratistaren eta langileen ordezkaritzaren artean lortutako akordioaren bidez, baina soldata-baldintzak ez dira inola ere izango aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboan ezarritakoak baino txikiagoak.

Kontratistak alderdi hori egiaztatzeko eskatzen zaion edozein informazio edo dokumentazio eman beharko dio kontratazio-organoari.

4.- Kontratistak kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko du. Horretarako, esleitu ondoren langile horiei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaion informazio guztia eman beharko du.

5.- Atxikitako langileen lan-baldintzetan egiten den edozein aldaketa, esleipenaren unean aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritakoei eragiten badie, kontratazio-organoari jakinarazi beharko zaio aldez aurretik. Jakinarazpenean, negoziazioa justifikatzen duen dokumentazioa eta lan-baldintza berrien edukia jaso beharko dira, bai eta horiek kontratuaren kostuen egituran izango duten berehalako eta etorkizuneko eragin ekonomikoa ere.

6.- Azpikontratatuz gero, enpresa azpikontratistak ere klausula honetan xedatutakoa bete beharko du. Enpresa kontratistak, azpikontratatutako jarduera hasi aurretik, egiaztatuko du azpikontratatzen dituen enpresetako langileak Gizarte Segurantzan afiliatuta eta alta emanda daudela, eta kontratazio-organoari jakinaraziko dio.

7.- Kontratistak klausula honen ondorioz bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, eta, ondorioz, erakunde kontratatzailea betebehar horretatik eratorritako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera kondenatzen badute, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko zaizkio, eta, ondorio horietarako, administrazio kontratatzaileak egoki eta komenigarriak diren ekintza administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, ordaindutako zenbateko guztiak berreskuratu arte.

38.2.2.- Kontratua gauzatzeko behar diren langileei buruzko betebeharrak

1.- Esleipendun proposatutako enpresak, kontratatutako jarduera hasi aurretik, kontratua gauzatzen arituko diren langileen zerrenda aurkeztu beharko du, eta Gizarte Segurantzan alta emanda eta afiliatuta dagoela egiaztatu.

Bestela, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar du, adierazteko data horretan ez dituela kontratatuta kontratua egikaritzeaz arduratuko diren pertsonak, eta pertsona horiek guztiak kontratatu dituenean afiliatuta eta alta emanda daudela egiaztatuko du, betiere kontratatutako jarduera hasi aurretik.

2.- Enpresak langile berriak kontratatzen baditu kontratuaren xedeari atxikitzeko, honako informazio eta dokumentazio hau eman beharko dio erakunde kontratatzaileari:

- Afiliazioa eta alta Gizarte Segurantzan.
- Kontratu-modalitatea, kontratuaren xedea, lanbide-kategoria edo -taldea eta lanaldia.
- Urteko soldata gordina (ordainsari-kontzeptuen arabera banakatuta).
- Hala badagokio, aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa eta indarrean dauden itun aplikagarriak.
- Hala dagokionean, gaitzen duen titulazio akademikoa.

3-. Enpresa kontratistak hilero bidaliko dio kontratuaren arduradunari kontratuari atxikitako langile guztien eta kontratuari lotutako gainerako pertsona fisiko eta juridikoen zerrenda, bai eta langileen soldatak eta Gizarte Segurantzako kuotak ordaindu direla justifikatzen duen dokumentazioa ere.

4- Kontratua bere horretan betetzen ari dela egiaztatzeko, kontratazio-organoak beharrezkoa eta egokia den, gehiegizkoa ez den eta datuen kalitate-printzipiora egokitzen den informazio pertsonala soilik eskuratu ahal izango du, betiere datuen babesaren arloko legeriak eskatzen dituen printzipioak betez.

5.- Kontratistak klausula honen ondorioz bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, eta, ondorioz, erakunde kontratatzailea betebehar horretatik eratorritako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera kondenatzen badute, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko zaizkio, eta, horretarako, administrazio kontratatzaileak egoki eta komenigarri den edozein ekintza administratibo edo judizial egiteko eskubidea izango du, ordaindutako zenbateko guztiak berreskuratu arte.

38.2.3.- Subrogazio-kasuetako betebeharrak

1.- SPKLren 130. artikuluan aurreikusitako informatzeko betebeharra aplikatuz, ezaugarrien taulako 2. 5 apartatuan subrogazioaren eraginpeko langileen kontratuen baldintzei buruzko informazioa ematen da, enpresa lizitatzaileek kontratuaren adjudikaziodun izango diren benetako lan-kostuen ebaluazio egokia egin ahal izan dezaten.

Informazio hori honako hauetan datza: subrogatutako langileen zerrenda, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa, lan-kategoria, kontratu-mota, antzinatasun-data, lanaldia, kontratuaren epemuga, langile bakoitzaren urteko soldata gordina, subrogazioak eragiten dien langileei aplikatu beharreko indarreko itunak, eta, nahitaezkoa denean, titulazio akademikoa.

2.- Kontratua enpresa berriari adjudikatu ondoren, baina kontratua gauzatzen hasi aurretik, zerbitzua emateari uzten dion enpresak ziurtagiri bat emango dio adjudikaziodun berriari. Ziurtagiri horretan, honako hauek jasoko dira: langileen izena, jaioteguna, edozein motatako hartukizun guztien zenbatekoa (ordainsari-kontzeptuaren arabera banakatuta), antzinatasuna, kontratu-modalitatea, kontratuaren aurreikusitako epemuga, lanaldia, kategoria edo talde profesionala eta indarrean dauden itun aplikagarri guztiak, bai eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria ere, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dituela egiaztatzen duena, eta ordaindu beharreko zati proportzionalen likidazioaren ordainagiriak. Halaber, esleipendun berriaren eskura jarriko ditu adjudikaziodunak egokitzat jotzen dituen dokumentuak, hori guztia egiazkoa dela egiaztatzeko.

Enpresak langileen ordezkaritza badu, ziurtagiriarekin batera, aurreko paragrafoan adierazitako datuei buruz gutxienez enpresak berak egindako txostena aurkeztu beharko da.

3.- Subrogazioa egin ondoren lan-kostuak handiagoak badira kontratista zaharrak kontratazio-organoari emandako informaziotik ondorioztatzen direnak baino, kontratista berriak zuzeneko akzioa izango du kontratista zaharraren aurka.

4.- Zerbitzua uzten duen kontratistak bere gain hartuko ditu subrogazioaren eraginpeko langileei ordaindu gabeko soldatak, bai eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioak ere, nahiz eta kontratua suntsiarazi eta langileak kontratista berriak subrogatu. Betebehar hori ez dagokio inola ere kontratista berriari (subrogazioa Langileen Estatutuaren 44. artikulua aplikatzearen ondorioz gertatu denean izan ezik). Horretarako, entitate kontratatzaileak, aipatutako soldatak ordaindu ez direla egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion zenbatekoak atxikiko dizkio, soldata horien ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko soldatak ordaindu direla egiaztatzen ez den bitartean.

5.- Kontratistak klausula honen ondorioz bere gain hartutako betebeharrak bete ez dituelako erakunde kontratatzailea betebehar horretatik eratorritako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera kondenatzen badute, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko zaizkio, eta, horretarako, administrazio kontratatzaileak egoki eta komenigarri den edozein ekintza administratibo edo judizial egiteko eskubidea izango du, ordaindutako zenbateko guztiak berreskuratu arte.

38.2.4.- Gauzatzeko hizkuntza-betebeharrak

1.- Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan ezartzen duen eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak arautzen duen hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidearen mende dago, bai eta Azpeitiko Udalaren eta haren erakunde autonomoen jarduketa-eremuan euskararen erabilera normalizatzeko indarrean dagoen planaren mende ere.

2.- Ezaugarrien koadroan besterik adierazten ez bada, enpresa esleipendunak hizkuntza ofizial bietan emango ditu kontratuaren xede diren azterlanak, txostenak, proiektuak edo bestelako lanak, softwareen testu- eta soinu-interfazeak barne.

3.- Diseinu eta jarduera guztiak (errotuluak, argitalpenak, seinaleak, abisuak eta komunikazioak barne) planteamendu elebidunarekin egin behar dira, euskaraz eta gaztelaniaz, salbu eta kasu jakin batzuetan komenigarritzat jotzen bada euskararen lehentasunezko erabilera, planteatzen den ekintzaren ezaugarrien eta zuzentzen zaion herritar-segmentuaren arabera, betiere herritarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea zainduz.

4.- Euskararen erabilera bermatuko da errotulu, argitalpen, seinale, ohar eta komunikazioetan, eta, oro har, elkarrizketetan.

5.- Kontratua gauzatzeak hirugarrenekin edo herritarrekin oro har harremana izatea badakar, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta hartzaileekin izan beharreko harremanetan, erabiltzaileak edo hirugarren pertsonak kasu bakoitzean aukeratzen duen hizkuntza erabiliko da komunikazioan, ahoz zein idatziz. Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, esleipenaz arduratzen den enpresak pertsona fisiko edo juridikoei zuzentzen dizkien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak bi hizkuntza ofizialetan egingo dira; nolanahi ere, herritarrak edozein unetan baliatu ahal izango du hizkuntza aukeratzeko eskubidea, eta hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzeko eskatu ahal izango du.

38.2.5.- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko betebeharrak

1.- Enpresa esleipendunak, kontratua gauzatzean, honako hauek bermatuko dituzten neurriak ezarri beharko ditu: enplegua lortzeko emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, sailkapen pertsonala, sustapena, iraunkortasuna, prestakuntza, ordainsariak, lanaren kalitatea eta egonkortasuna, lanaldiaren iraupena eta antolamendua, eta kontratua gauzatzeko atxikitako langileen bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen lagunduko duten neurriak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera.

2.- Enpresa esleipendunak hizkera ez-sexista erabili beharko du kontratua gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztian, eta emakumeen kontrako bereizkeria edo estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihestu beharko ditu, eta berdintasunaren aldeko irudiak sustatu beharko ditu, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta rolen eta genero-identitateen pluraltasuna sustatzen dutenak.

3.- Enpresa edo erakunde esleipendunak neurriak hartuko ditu lanean sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko, hamar langile baino gehiago behar diren kontratuetan.

38.2.6.- Azpikontratazio-kasuetako betebeharrak

1.- Azpikontratuak egiteko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Adjudikaziodunak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari, kontratua adjudikatu ondoren eta, gehienez ere, exekuzioa hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa duela, eta honako hauek adierazi beharko ditu: prestazioaren zer zati azpikontratatu nahi duen, eta azpikontratisten identitatea, harremanetarako datuak eta legezko ordezkariak, bai eta azpikontratistek azpikontratatu nahi diren prestazioaren zatiak gauzatzeko gaitasuna dutela justifikatzen duen dokumentazioa ere, eta Administrazioarekin kontratatzeko debekurik ez dutela egiaztatzen duena.

   Proposatutako enpresa azpikontratista SPKLren 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko desgaikuntza eta debekuen eraginpean ez dagoela egiaztatzeko, enpresa kontratistak, aurreko apartatuan adierazitako dokumentazioarekin batera, ildo horretan azpikontratistak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du nahitaez.

   Eskaintzan adierazitakoarekin bat ez datozen azpikontratuak, eskaintzan izenez adierazitako enpresez bestelakoekin egiten direlako edo eskaintzan adierazitakoez bestelako prestazio-zatiei buruzkoak direlako, ezin izango dira egin jakinarazpena egin eta azpikontratistak hura gauzatzeko duen gaitasunaren justifikazioak aurkeztu direnetik 20 egun natural igaro arte, dauzkan elementu teknikoei eta giza elementuei eta esperientziari dagokienez, salbu eta aurretik berariaz baimendu badira, eta, betiere, Administrazioak ez badu epe horren barruan jakinarazi horien aurka dagoela. Araubide hori bera aplikatuko da azpikontratistak eskaintzan lanbide-profilaren deskribapenaren bidez identifikatu badira.

b) Enpresa kontratistaren erantzukizunpean, 20 egun naturaleko epea igaro gabe amaitu ahal izango dira azpikontratuak, baldin eta horiek egitea beharrezkoa bada larrialdi-egoera bati erantzuteko edo premiazko neurriak hartu behar badira, eta behar bezala justifikatzen eta jakinarazten bada.

c) Isilpeko edo isilpeko kontratuetan, edo legezko edo erregelamenduzko xedapenen arabera segurtasun-neurri bereziekin gauzatu beharrekoak diren kontratuetan, edo Administrazioaren segurtasunaren funtsezko interesak babestu beharrak hala eskatzen duenean, azpikontratazioa egiteko, kontratazio-organoaren berariazko baimena beharko da beti.

2.- Ezaugarrien taulako 1.7 atalean adierazten diren zeregin kritikoak ezin dira azpikontratatu, eta kontratista nagusiak egin behar ditu zuzenean.

3.- Azpikontratistek enpresa kontratista nagusiaren aurrean baino ez dituzte betebeharrak izango, eta hark bere gain hartuko du, beraz, Administrazioarekiko erantzukizun osoa, kontratua baldintza zehatzen agiriei eta kontratuaren baldintzei zorrotz jarraituz gauzatzeko, ingurumen-, gizarte- edo lan-arloetako betebeharrak barne.

Administrazioak aurreko 1. apartatuko a) eta b) letretan aipatzen diren komunikazioak direla-eta egindako azpikontratuen berri izateak edo apartatu horretako c) letran aurreikusitako kasuan ematen duen baimenak ez du aldatuko enpresa kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa.

4.- Kontratistak inola ere ezingo du hitzartu kontratuaren exekuzio partziala ordenamendu juridikoaren arabera kontratuak egiteko desgaituta dauden pertsonekin, ez eta SPKLren 71. artikuluan jasotako kasuren batean daudenekin ere.

5.- Enpresa kontratistak azpikontratazioari atxikitako langileen ordezkariei jakinarazi beharko die, lan-arloko legeriaren arabera.

6.- Enpresa edo erakunde esleipendunak azpikontratua jasoko duen dokumentua aurkeztu beharko dio kontratazio-organoari. Dokumentu horretan, enpresa edo erakunde azpikontratistak kontratu honetan aurreikusitako klausulei dagokienez dituen betebeharrak eta horiek ez betetzearen ondorioak ezarri beharko dira.

7.- Azpikontratistei ordaintzeko, SPKLren 216. artikuluan eta Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren xedapen iragankorrean xedatutakoa bete beharko da.

8.- Administrazioak egiaztatu ahal izango du zorrotz betetzen direla kontratistak kontratuan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaileei egin beharreko ordainketak.

Horretarako, kontratistak, hala eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda xehatua bidaliko dio administrazioari, haien parte-hartzea perfekzionatzen denean, bai eta horietako bakoitzaren azpikontratazio- edo hornidura-baldintzak ere, ordainketa-epearekin lotura zuzena badute.

Era berean, Administrazioari, hala eskatzen duenean, SPKLren 216. artikuluan eta abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak bete izanaren egiaztagiria emango dio, prestazioa amaitu ondoren.

38.2.7.- Laneko segurtasun eta osasunaren arloko betebeharrak

1.- Enpresa kontratistak laneko segurtasunaren eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, bai eta hitzarmen kolektibo aplikagarritik eratorritakoak ere.

2.- Enpresa kontratistak laneko segurtasun- eta higiene-neurriak hartu beharko ditu, kontratuaren objektuari atxikitako langileen osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak zorrotz prebenitzeko nahitaezkoak edo beharrezkoak direnak.

3.- Kontratuaren objektuaren izaerak eskatzen duenean kontratistak (edo, hala badagokio, azpikontratistak) esku hartzea prestazioren bat egin behar duenean Administrazio kontratatzailearen zentroetan, zeinetan Administrazioko langileek ere lan egiten baitute, jarduera hasi aurretik, enpresa eta langile autonomo guztiek lankidetzan aritu beharko dute, eta informazioa trukatu, garatuko dituzten jardueren arrisku espezifikoei buruz, langileei eragin diezaieketenez. Enpresek jardueren konkurrentziaren ondoriozko arriskuen berri emango diete beren langileei, eta beharrezkoak eta egokiak diren koordinazio-bitartekoak ezarriko dituzte.

Horretarako, jasotako informazioa kontuan hartuko da lan-arriskuen ebaluazioan eta prebentzio-jardueren plangintzan.

Kasu horietan, jarduera hasi aurretik, enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua betez, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Prebentziozko kudeaketaren dokumentua eta hartu beharreko prebentzio-neurriak.
b) Egin beharreko lanen prebentzio-jardueraren plangintza.
c) Kontratistak eta, hala badagokio, azpikontratistak sinatutako hartu-agiria, administrazio kontratatzaileak lantokiaren eta haren instalazioen arriskuei buruz, arrisku horiek prebenitzeko prebentzio-neurriei eta jarraibideei buruz eta larrialdi-egoeretan aplikatu beharreko jarraibideei buruz emandako dokumentazioa jaso dutela egiaztatzen duena.
d) Hartutako prebentzio-antolamenduaren modalitatea. Kanpoko prebentzio-zerbitzuaren kasuan, Segurtasun, Higiene, Ergonomia eta Psikosoziologia aplikatuko hiru espezialitateekin eta Osasunaren Zaintzarekin egindako kontratuaren kopia erantsi beharko da, bai eta ordainagiria edo ziurtagiria ere, gaur egun indarrean dagoela adierazten duena.
e) Kontratua gauzatuko duten langileen zerrenda eta kontratuaren xederako makinak.
f) Kontratua egikaritzeari atxikitako langileek kontratatutako lanak egiteko duten gaitasun medikoaren egiaztagiriak.
g) Kontratua egikarituko duten langileei prebentzioaren arloan emandako prestakuntzaren eta informazioaren egiaztagiria; lantokiaren eta instalazioen berezko arriskuei buruz jasotako informazioa, arrisku horiek prebenitzeko prebentzio-neurriak eta jarraibideak, eta larrialdi-kasuetan aplikatu beharrekoak barne.
h) Behar diren norbera babesteko ekipamenduak (NBE) eman izanaren egiaztagiria.
i) Enpresak bere makinak eta lan-ekipamenduak jartzen baditu, adostasun-adierazpena, CE marka edo langileek lan-ekipoak erabiltzeko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretura egokitzeko dokumentua eta horiek erabiltzeko jarraibideen liburua. Era berean, horiek erabili behar dituzten langileek prestakuntza espezifikoa jaso dutela eta erabiltzeko baimena dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.
j) Produktu kimikoen segurtasun-fitxak, enpresa kontratistak edo azpikontratistak produktu kimikoak ekarri behar dituenean.
k) Segurtasun- eta osasun-arauak betetzen direla bermatu beharko duen pertsonaren nortasuna ezagutaraztea eta administrazio kontratatzaileko langileekin koordinatzeko bitartekoak ezartzea. Baita beharrezko prebentzio-baliabideak eskura jartzea ere, beharrezkoak direnean.

Enpresa kontratistak beste enpresa batekin azpikontratatzen badu kontratuaren xedearen zati bat egitea, azpikontratistari (autonomoei) eskatu beharko dizkio klausula honetan aurreikusitako egiaztagiriak, administrazio kontratatzaileari entregatzeko.

Bereziki, enpresa azpikontratistak laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko betebehar guztiak betetzen dituela zaindu behar du, eta, zehazki, araudiak aurreikusten duena betetzen duela, prebentzio-jardueren koordinazioari eta, beharrezkoak direnean, prebentzio-baliabideak eskura jartzeari dagokienez.

Enpresa kontratistak bermatu beharko du azpikontratatutako enpresak azpiegitura eta bitarteko egokiak dituela jarduera gauzatzeko eta lanen zuzendaritza zuzenean gauzatzeko.

Kontratistek eta azpikontratistek laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen dutela zainduko du entitate kontratatzaileak, eta, horretarako, helburu horrekin bat datorren edozein neurri hartu ahal izango du.

4.- Kontratuaren objektuaren izaerak eskatzen duenean kontratistak (edo, hala badagokio, azpikontratistak) parte hartzea prestazioren bat egin behar duenean bere langileek lan egiten ez

duten erakunde kontratatzailearen zentroetan, ezin izango da kontratuaren objektua den jarduera hasi aldez aurretik administrazio kontratatzaileak honako jarduketa hauek egin ez baditu:

- Parte hartzen duten enpresei garatutako jardueretan eragina izan dezaketen lantokiko arriskuen berri ematea, bai eta arrisku horien prebentzio-neurrien berri ere.
- Enpresa kontratistari larrialdi-neurrien berri ematea.

Lantoki horretan enpresa bat baino gehiagoko langileek parte hartu behar badute, jarduera hasi aurretik, Enpresa-jardueren koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua betez, parte hartzen duten enpresa eta langile autonomo guztiek lankidetzan jardun beharko dute, eta informazioa trukatu, egingo dituzten jardueren arrisku espezifikoei buruz eta parte hartzen duten beste enpresetako langileei eragin diezaieketen arriskuei buruz. Enpresek jardueren konkurrentziaren ondoriozko arriskuen berri emango diete beren langileei, eta beharrezkoak eta egokiak diren koordinazio-bitartekoak ezarriko dituzte. Horretarako, jasotako informazioa kontuan hartuko da lan-arriskuen ebaluazioan eta dagozkion prebentzio-jardueren plangintzan.

Jarduera hasi aurretik, kontratistak eta, hala badagokio, azpikontratistak Administrazio kontratatzailearengandik lantokiaren eta instalazioen berezko arriskuei, garatutako jarduerei eragin diezaieketen lantokiko arriskuei eta arrisku eta larrialdi horien prebentzio-neurriei buruzko dokumentazioa jaso dutela egiaztatzen duen hartu-agiri sinatua aurkeztu beharko dute.

